

**Emakume eta gizonen arteko berdintasuna
Gipuzkoan**

**Adierazleen azterketa 2013ko aurrekontu
prozesurako**

2012ko urria

1. Aurkezpena

Dokumentuak Gipuzkoako gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekin zerikusia duten adierazleak aztertzen ditu. Dokumentuaren ikuspegia Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko aurrekontu-prozesurako interesaren ikuspegitik planteatzen da (generoaren ikuspegia), baita Europar Batasunarekin eta kide diren estatuekin Europako Batzordeak hautatutako erreferentziatzko adierazleetatik abiatuta nazioartean alderatzetik ere.

Gipuzkoako eta Europar Batasuneko benchmarking-eko azterketarako adierazleak, aurrekontu-prozesuko generoaren ikuspegiarako, bost bloke handitan egituratzen dira: lan-merkatua, prestakuntza eta prestakuntzarako irisgarritasuna, errenten desberdintasuna, presentzia erabakiak hartzeko alorretan eta denboraren erabilera.

Hauek dira hautatutako 14 adierazleak:

- 15 eta 64 urte arteko biztanleriaren okupazio-tasa
- 55 eta 64 urte arteko biztanleriaren okupazio-tasa
- 15 urte eta gehiagoko biztanleen langabezia-tasa
- Lanaldi partzialeko enpleguaren eragina
- Bigarren hezkuntzako ikasketak dituen 20 eta 24 urte arteko biztanleria
- Unibertsitateko ikasketak dituen biztanleria
- Pobrezia-arriskuaren tasa
- Errentetan eta familia-errentetan gizon eta emakumeen artean dagoen aldea
- Soldatetan gizon eta emakumeen artean dagoen aldea
- Emakumeak Parlamentu nazionalean
- Emakumeak gobernu nazionaletan
- Emakumezkoak zuzendaritza-karguetan
- Zaintza eta etxeko lanei eskainitako denbora
- Aisiari eskainitako denbora

2. Adierazleen azterketa sintetikoa

2.1. Gipuzkoako adierazleen egoera eta bilakaera

Azken urteetan, Gipuzkoako gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko erreferentziazko adierazleen bilakaerak, oro har, ibilbide positiboa izan du, emakumezkoen kolektiboaren egoera kaltegarritik abiatuta.

2.1.1. Lanaren alorra

Enplegurako sarrera urriagoa da emakumeen artean, batez ere helduagoa den (55 eta 64 urte) biztanleria potentzialki aktiboaren taldean.

Hala ere, azken urteetan emakumeen enplegurako sarrera areagotu izana eta gizonekiko aldearen murrizketa nabarmendu dezakegu. Honela, hamar urteren epean emakumeen okupazio tasa 14 p.p. hazi da, eta gizonezkoekin duten arraila 18 p.p. gutxitu da.

55-64 adin tartean ere, emakumeen okupazio tasa 5 p.p. hazi da azken 5 urteotan, gizonezkoekin arraila 9 p.p. txikitu delarik.

Langabeziari dagokionez, krisi ekonomikoak gutxiago eragin die emakumeei gizonei baino. Hala ere, aipatu behar da emakumezkoen langabezi tasa bikoiztu egin dela azken hiru urteetan.

Bestalde, emakumeek proportzio handiagoan burutzen dituzte lanaldi partzialeko lanak. Honen oinarrian zera dago: lan erreproduktiboaren ardura emakumezkoena batik bat izaten jarraitzen duela. Honek lan produktiboari denbora eta inplikazio gutxiago eskaintzera behartzen ditu emakumeak.

Hala ere, eta behar bada krisiak bultzatuta, lanaldi partzialean lanean ari diren emakumeen portzentajea murrizteko joera azpimarra dezakegu, nahiz eta gizonezkoen adierazlea baino askoz ere altuagoa izan.

Azkenik, aipatzekoa da ere lanaren sexukako banaketa, hemen ere genero rol-ak berebiziko eragina baitu. Ondoko koadroan ikus dezakegun moduan, emakume landunen %80tik gora

zerbitzuen sektorean lan egiten du, eta zortziren batek soilik industrian. Aldiz, gizonezkoen %40a ari da industrian.

Biztanleria landunaren banaketa sektore eta sexuaren arabera

SEKTOREA	2005	2008	2011
Emakumeak			
Nekazaritza	0,8	0,9	0,3
Industria	13,8	14,4	12,5
Eraikuntza	1,4	1,6	1,5
Zerbitzuak	84,0	83,1	85,8
Guztira	100,0	100,0	100,0
Gizonak			
Nekazaritza	1,4	1,4	0,9
Industria	40,3	40,2	40,9
Eraikuntza	13,5	13,4	11,4
Zerbitzuak	44,9	45,0	46,8
Guztira	100,0	100,0	100,0

2.1.2. Prestakuntzaren alorra

Prestakuntzarako sarbidea altuagoa da hezkuntza maila altuagoa lortzen duten emakumeen artean.

Honela, 20-24 urte bitarteko emakumeen %84ak bigarren hezkuntzako ikasketak ditu. Datua ona bada ere, 2003ko %87tik zertxobait aldendu da.

Unibertsitate ikasketei dagokienez, emakumeak lizentziatuen gehiengo zabala izaten jarraitzen dute 2010ean ere (%60). Aipatu beharra dago, hala ere, goi mailako ikasketa teknikoetan (ingeniaritza, arkitektura,...) oso gutxi direla emakumezkoak, %28a besterik ez 2010ean, esaterako.

Goi mailako ikasketetan ari direnen sexukako banaketa portzentuala

Ikasketa adarra	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Zientziak	40	60	100
Humanitateak	38	62	100
Osasuna	23	77	100
Gizarte eta juridikoak	36	64	100
Teknikoak	72	28	100

Honek, gure ekonomian industriak duen pisua kontuan edukita, emakumeen lan merkaturako sarbidea mugatzen du.

2.1.3 Errenta desberdintasuna

Errenten blokeak desoreka nabarmena erakusten du gizon eta emakumeen artean. Emakumezkoek errenta txikiagoak jasotzen dituzte eta egindako lanagatik diru-sarrera gutxiago lortzen dute; beraz, kopuruari dagokionez, aldeak nabarmenak dira.

Zentzu honetan, PFEZ aitortpenetan banaka aitortzen dutenen errenta aztertzen badugu, zera ikus daiteke: gizonezkoen batez besteko errenta emakumezkoena baino %25 handiagoa dela (2010 ekitaldiko datuak kontuan hartuta).

2010eko PFEZari dagokionez, bestalde, laneko etekinak dituzten aitortzaileen artean emakumezkoen batez bestekoa (laneko errenta) gizonezkoena baino %34 txikiagoa da.

Aipatutako bi datuak aski esanguratsuak dira, genero desberdintasun agerikoa dela aitortzeko.

Horrekin lotuta, pobreziak neurri handiagoan eragiten die emakumeei, gizon eta emakume arteko aldea nabarmena izanik. Pobreziaren datuen eguneraketa 2012ko Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkestaren emaitzak kaleratzean lortuko ditugu, krisiaren eragina hobe aztertze aldera.

2.1.4. Erabakiak hartzeko alorra

Esparru publikoan izandako aurrerapenak nabarmentzen dira, enpresaren eremuan dagoen desoreka egonkorraren aurrean.

Horrela, Gipuzkoan azken legegintzaldian (2011-2015) osatutako foru diputatuen Gobernu taldea guztiz parekidea da, lau urte lehenago emakumeek karguen %18 besterik ez zuten bitartean.

Batzar Nagusietan ere argi nabari da parekidetasunerako joera, gaur egun batzarkideen %53 baitira emakumezkoak (2007an ez ziren herenera iristen).

Udal esparruan, aldiz, urruti gelditzen da parekidetasuna alkatetzen banaketaren kasuan. Zertxobait hobetu bada ere emakumezkoen proportzioa (%28,4 dira, 2009ko %25aren aldean), oraindik zerrendaburuak gehientsuenetan gizonezkoak dira.

Enpresa munduan, ez dira heren batera iristen goi karguetan dauden emakumeak.

2.1.5 Denboraren erabilera

Alor honetan ere genero rol-aren pisua itzela da, batik bat lan erreproduktiboari dagokionez. Aisiari gero eta denbora gehiago eskaintzen zaio emakume nahiz gizonen aldetik, azken hauek errazago lortzen badute ere horretarako beta.

Emakumeen kasuan, zaintza nahiz etxeko lanei eskaintzen dioten denbora askoz handiagoa denez (2 ordu t'erdi gehiago gizonek baino), aisiari eskaini nahi dioten denbora eduki ahal izateko stress maila handiagoa pairatu behar dute, beraien denboraren kudeaketa zailagoa egiten baitzaie.

Esan beharra dago, Europa mailan alderatuta, zaintzara bideratzen den denboran arraila handienetakoa dutela euskal emakumeek (gipuzkoarrak barne), baina aldi berean, aisiari denborarik gehien eskaintzen diotenen artean daudela ere.

2.1 taula Laburpen Taula: Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna Gipuzkoan

	Adierazlea	Gaurko egoera	Azken urteetako bilakaera(1)
LAN MERKATUA			
Emakumezkoen okupazio-tasa. 2011	%63,2	:	+
Okupazio-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila	8,7 p.p.	-	++
55-64 urteko emakumezkoen okupazio-tasa ⁽²⁾	%35,8	-	+
55-64 urteko biztanleen okupazio-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila	20,6 p.p.	--	+
Emakumezkoen langabezia-tasa	%7,7	:	-
Langabezia-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila	-0,9 p.p.	+	+
Lanaldi partzialean lan egiten duten emakumeak	%16,6	++	+
Lanaldi partziala: gizon eta emakumeen arteko arraila	13,8 p.p.	--	+
PRESTAKUNTZA ETA PRESTAKUNTZARAKO SARRERA			
Gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak dituen 20-24 urteko emakumeak (2011)	%84,2 ⁽²⁾	+	-
Unibertsitateko ikasketak amaitu dituen biztanleriaren banaketa: emakumeak	%59,7	+	+
ERRENTEN DESBERDINTASUNA			
Emakumezkoen pobrezia-arrikuaren tasa	%4,8	:	:
Pobrezia-arrikuaren tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila	2,0 p.p.	--	:
Errentak: gizon eta emakumeen arteko arraila (PFEZ 2010)	%25,3	--	:
Laneko errenta: gizon eta emakumeen arteko arraila (PFEZ 2010)	%33,7	--	+
ERABAKIAK HARTZEKO ALORRAK			
Emakumezkoak Parlamentuan. 2012	%53,0	=	++
Emakumezkoak Gobernuan. 2012	%50,0	=	++
Emakumezkoak enpresa zuzendaritza-karguetan	%29,0	--	=
DENBORAREN ERABILERA			
Zaintza eta etxeko lanei eskainitako denbora ⁽³⁾ (emakume eta gizonen arteko arraila: oo:mm/egun)	+2ordu 28min	--	=
Aisiari eskainitako denbora ⁽³⁾ (emakume eta gizonen arteko arraila: oo:mm/egun)	-57min	-	=

(1)Azken 4 urteetan.

(2)Euskal A.E.ri dagokion emaitza.

Oharra: +/-/= ikurrak gizon eta emakumeen arteko berdintasunean gaur egungo egoera edo azken urteetako bilakaera aldeko/kontrako/berdina adierazten du. : Ez dago emaitzarik/ ezaugarri bereizgarri gabeko emaitza.

Iturria: Eustat, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, eta EIN-k argitaratutako datuetan oinarritutako emaitzak.

(3) Denbora Aurrekontuen Inkestatik ateratako datuak. 5 urtean behin egiten da, azkena 2008an egin zelarrik.

2.2. Gipuzkoako benchmarking-azterketa, Europar Batasuna erreferentziatzat hartuta

Gipuzkoaren eta Europar Batasuna-27ko batez bestekoaren arteko alderaketa-azterketak egoera desorekatua erakusten du.

Lanaren alorrean, enplegurako sarbidea eta langabezia-tasa txikiagoa positiboki nabarmentzen da, helduenen taldean salbu.

Bestalde, lanaldi partzialeko kontratazio murrizta nabarmentzen da Gipuzkoan, emakume nahiz gizonezkoen artean.

Hezkuntzarako sarbideari dagokionez, alderaketa-egoera nahiko antzekoa da. Ez da hala gertatzen, ordea, pobrezari dagokionez; egoera horretan gizon eta emakumeen arteko aldea nabarmenagoa baita Gipuzkoan.

Erabakiak hartzeari dagokionez, esfera politikoko egoera mesedegarria enpresaren alorreko egoera kaltegarriarekin alderatzen da.

Ondorengo tauletan xehetasun gehiagorekin ikus daitezke Gipuzkoa eta Europar batasunaren arteko aldeak, baita erreferentziatzko adierazleetan balio hoberenak eta kaltegarrienak dituzten 3 herrialdeen ranking-a ere (EB-top eta EB-sub):

2.2 taula. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna Gipuzkoan eta Europan

2.3 taula: Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna Gipuzkoan, Europan eta Europako herrialde garrantzitsuenetan

2.3 taula. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna Gipuzkoan eta Europan

	Gipuzkoa	EB-27	Benchmarking
LAN MERKATUA			
Emakumezkoen okupazio-tasa. 2011	%63,2	%58,5	+
Okupazio-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila	8,7 p.p.	11,6 p.p.	+
55-64 urteko emakumezkoen okupazio-tasa	%35,8	%40,2	-
55-64 urteko biztanleen okupazio-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila	20,6 p.p.	15,0 p.p.	--
Emakumezkoen langabezia-tasa	%7,7	%9,6	+
Langabezia-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila	-0,9 p.p.	0,2 p.p.	+
Lanaldi partzialean lan egiten duten emakumeak	%16,6	%31,5	--
Lanaldi partziala: gizon eta emakumeen arteko arraila	13,8 p.p.	23,2 p.p.	+
PRESTAKUNTZA ETA PRESTAKUNTZARAKO SARRERA			
Gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten 20-24 urteko emakumeak (2011) EAE	%84,2	82,4%	+
Unibertsitateko ikasketak amaitu dituen biztanleriaren banaketa: emakumeak	%59,7	59,5%	=
ERRENTEN DESBERDINTASUNA			
Emakumezkoen pobrezia-arriskuaren tasa	%4,8	%5,4	+
Pobrezia-arriskuaren tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila	2,0 p.p.	0,2 p.p.	--
ERABAKIAK HARTZEKO ALORRAK			
Emakumezkoak Parlamentuan. 2012	%53,0	%24,0	++
Emakumezkoak Gobernuan. 2012	%50,0	%26,0	++
Emakumezkoak enpresa zuzendaritza-karguetan	%29,0	%33,0	-
DENBORAREN ERABILERA			
Zaintza eta etxeko lanei eskainitako denbora (emakume eta gizonen arteko arraila; oo:mm/egun)	+2ordu 28min	+2ordu 15min ⁽¹⁾	-
Aisiari eskainitako denbora (emakume eta gizonen arteko arraila; oo:mm/egun)	-57min	-44min ⁽¹⁾	-

Oharra: +/-/= ikurrak gizon eta emakumeen arteko berdintasunean gaur egungo egoera edo azken urteetako bilakaera aldeko/kontrako/berdina adierazten du. : Ez dago emaitzarik/ ezaugarri bereizgarririk gabeko emaitza.

Iturria: Eustat, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jarularitza eta EIN-k argitaratutako datuetan oinarritutako emaitzak.

(1) EB27ko 13 herrialderen datuetatik ateratako batez bestekoa, besteenak ez daude eskuragarri.

2.3 taula: Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna Gipuzkoan, Europan eta Europako herrialde garrantzitsuetan

	Gipuzkoa	EB-27	EB-top	EB-sub
Emakumezkoen okupazio-tasa. 2011	63,2%	58,5%	SE (71,8%) DK (70,4%) NL (69,9%)	MT (41,0%) GR (45,1%) IT (46,5%)
Okupazio-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila. 2011	8,7 p.p.	11,9 p.p.	LT(0,4 p.p.) LV (2,1 p.p.) FI (3,2 p.p.)	MT (32,6p.p.) IT (21,0 p.p.) GR (20,8 p.p.)
55-64 urteko emakumezkoen okupazio-tasa. 2011	35,8%	38,6%	SE (66,7%) FI (56,9%) EE (54,9%)	MT (13,0%) PO (24,2%) SI (24,5%)
55-64 urteko biztanleen okupazio-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila. 2011	20,6 p.p.	15,0 p.p.	FI (-0,4 p.p.) EE (0,2 p.p.) LV (2,7 p.p.)	MT (36,3 p.p.) CY (28,7 p.p.) GR (25,0 p.p.)
Emakumezkoen langabezia-tasa. 2011	7,7%	9,6%	AT (4,3%) NL (4,4%) DE (5,6%)	ES (22,2%) GR (21,4%) SK (13,6%)
Langabezia-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila. 2011	-0,9 p.p.	0,2p.p.	IE (-6,7 p.p.) LV (-5,5 p.p.) LT (-4,8 p.p.)	GR (6,4 p.p.) LU (2,8 p.p.) CZ (2,0 p.p.)
Lanaldi partziala lan egiten duten emakumeak. 2011	16,6%	32,1%	NL (75,8%) DE (45,7%) AT (44,0%)	BG (2,6%) SK (5,9%) HU (9,2%)
Lanaldi partziala: gizon eta emakumeen arteko arraila. 2011	13,8p.p.	23,1p.p.	BG (0,4 p.p.) RO (1,9 p.p.) SK (3,1 p.p.)	NL (51,3 p.p.) DE (35,4 p.p.) AT (35,1 p.p.)
Gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak dituen 20-24 urteko emakumeak. 2011	84,2%	82,4%	SI (94,1%) SK (94,0%) CZ (92,8%)	MT (66,5%) ES (69,2%) PT (71,0%)
Unibertsitateko ikasketak amaitu dituen biztanleriaren banaketa: emakumeak. 2010	59,7%	60,1%	LV (71,3%) EE (69,3%) PO (65,8%)	ATU (51,5%) IE (54,8%) FR (55,2%)
Emakumezkoen pobrezia-arriskuaren tasa. 2008	4,8%*	5,4%	CZ (2,2%) FI (2,3%) AT (2,4%)	LV (12,0%) RO (11,4%) BG (8,6%)

2.3 taula: Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna Gipuzkoan, Europan eta Europako herrialde garrantzitsuenetan (jarraipena)

Pobrezia-arriskuaren tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila. 2008	2,0 p.p.	0,2 p.p.	DK (-0,9 p.p.) PO (-0,6 p.p.) FI (-0,4 p.p.)	LV (2,8 p.p.) CY (1,7 p.p.) LU (1,1 p.p.)
Emakumezkoak Parlamentuan. 2012ko 3. hh (behe kamera)	53,0%	26,0%	SE (44,0%) FI (43,0%) NL (41,0%)	MT (9,0%) HU (9,0%) RO (11,0%)
Emakumezkoak Gobernuan. 2012ko 3. hh (senior ministroak)	50,0%	26,0%	SE (54,0%) FR (49,0%) FI (47,0%)	GR (6,0%) SK (7,0%) SI (8,0%)
Zaintza eta etxeko lanei eskainitako denbora (emakume eta gizonen arteko arraila; oo:mm/egun)	+2ordu 28min	+2ordu 15min	NO (1:26) FI (1:40) BE (1:42)	IT (3:45) ES (3:18) BG (2:24)

* Euskal A.E.ri dagokion emaitza.

EB-top: Emaitza hobekoak dituzten Europako herrialdeak. EB-sub: Emaitza txarragoak dituzten Europako herrialdeak.

2.4 taula. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna: Bilakaera Gipuzkoan

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Emakumezkoen okupazio-tasa (%)	46,7	49,0	53,6	55,7	58,0	58,4	60,0	60,6	61,9	61,3	61,0	63,2
Okupazio-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila (p.p.)	28,5	26,8	23,3	21,9	17,9	20,0	19,3	18,9	16,1	11,8	12,7	8,7
55-64 urteko emakumezkoen okupazio-tasa (%)	:	:	:	:	:	:	30,8	31,1	33,0	31,9	34,0	35,8
55-64 urteko biztanleen okupazio-tasa: gizon eta emakum. arteko arraila (p.p.)	:	:	:	:	:	:	29,6	28,3	25,8	24,1	27,1	20,6
Emakumezkoen langabezia-tasa (%)	13,9	12,1	9,6	11,0	8,8	5,3	3,3	3,1	3,9	5,5	7,1	7,7
Langabezia-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila (p.p.)	7,3	6,4	4,9	5,5	2,4	1,9	0,6	0,9	1,0	-1,9	-0,5	-0,9
Lanaldi partzialean lan egiten duten emakumeak (%)	:	:	:	:	:	:	19,5	20,3	18,2	16,9	17,3	16,6
Lanaldi partziala: gizon eta emakumeen arteko arraila (p.p.)	:	:	:	:	:	:	17,1	18,2	16,2	15,0	14,8	13,8
Gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak dituen 20-24 urteko emakumeak (%)	85,5	86,4	85,7	87,0	86,4	85,8	84,7	85,2	82,7	83,4	81,6	84,2
Unibertsitateko ikasketak amaitu dituen biztanleriaren banaketa: emakumeak (%)	:	59,7	58,1	59,6	59,7	56,8	56,5	54,2	54,6	58,8	59,7	:
Emakumezkoen pobrezia-arrikuaren tasa (%)	:	:	:	:	:	:	:	:	4,8	:	:	:
Pobrezia-arrikuaren tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila. (p.p.)	:	:	:	:	:	:	:	:	2,0	:	:	:
Bataz besteko errenta: gizon eta emakumeen arteko arraila erlatiboa. (%) PFEZ	:	:	:	:	:	:	:	25,6	26,8	24,3	25,3	:
Laneko errenta: gizon eta emakumeen arteko arraila erlatiboa. (%) PFEZ	:	:	:	:	:	:	:	35,7	33,9	30,1	33,7	:
Bataz besteko errenta orduko: gizon eta emakumeen arteko arraila erlatiboa. (%)SEI*	:	:	:	:	22,2	18,3	19,1	22,6	18,2	17,6	15,5	:
Bataz besteko urteko soldata: gizon eta emakumeen arteko arraila erlatiboa. (%)SEI*	:	:	:	:	28,7	25,7	28,4	26,5	23,0	22,1	23,6	:
Emakumezkoak Parlamentuan (%)	:	:	:	:	:	:	:	31,4	:	47,1	48,0 (1)	53,0
Emakumezkoak Gobernuan (%)	:	:	:	:	:	:	:	18,2	:	36,4	50,0	50,0
Emakumezkoak Alkatetzetan (%)	:	:	:	:	:	:	:	25,0	:	28,4	28,4	28,4

(1) 2011ko ekainako datua * Euskal A.E-ri dagokion emaitza. SEI: Soldaten Egiturari buruzko inkesta